

Dirua ez da beti deabrua

Euskaldunon Egunkaria, 1997-04-20: 3.

Joan den zutabetxoan 20.000 milioi pezeta ulertezin egin zitzaizkigun, negozio itsusi batekin lotuta jarri genituelako: Conde baten kartzelaren erreskatagarri. Gaur 200.000 milioi ulergarri egiten zaizkigu, berriz, tratuak bedekintzen dituelako. Honek esan nahi du diruak berak ere baduela arima antzeko zerbait, eta salbagarri izan daitekeela. Ekintzaren zentzua dela medio. Kasu honetan, diruak abaletan daude inbertituak eta enpresa txiki eta ertainetan, hauek enplegua, lana, sor dezaten. Gaurko premia gorria. Inbento ona da, beraz: Elkargi izena du, eta bere zeregina enpresarien artean maileguak posible egitea da. Behar den bezala, handiak hasi dira diruarekin exenplua ematen, eta hor datoz besteak: 1966an 200 kide berri lortu zituen, eta hemen dira dagoeneko aurten 6.783 elkartu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Eta datorren urtean sartuko da sistema honetan Nafarroako bulegoa. Honek euskal alegia zahar bat dakarkit gogora. Seme-alabak sesioan ikusirik, aitak bildu zituen eta esan: "Ikusten dituzue arbasta xume hauek, banan-banan erraz zatitzen dira, baina jarri sortan, gabilan, eta ez dituzue, ez zaizkizue, hautsiko". Amets erraz bat dirudi, baina hauetakoak ere gerta daitezke nonbait, gertatzen laguntzea falta.